

AEK
ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE
KOORDINAKUNDEAREN DEFENTSAN

Direla hogeita lau bat urte, Karmeloko etxe honetan euskarako eskola batzuri hasiera eman genienean, ez nuen uste Euskal Herriko hainbat bazterretan, isilpean edo erdi-isilpean, ikastoletako mugimenduaren osagarri gisa, aortzen ari ziren euskarako eskolen oroitzapen hau egin beharrean izango nintzenik.

Euskal Herriko hainbeste euskalzalek, hor-hemenka, adineko pertsonen alfabetatzari zein euskalduntzeari ekin zionean, itzaropena eta amets zirudienak oparo eman izan ditu fruituak Euskal Herri osoan zehar.

Hogeitaka urteak direla Rikardo Arregiren gidaritzapean eta Euskaltzaindiaren babespean adinekoentzako euskarako eskolen arteko koordinakundea sortzeak oso eragin handia izan zuen:

a) *Euskara irakasteko metodo berrien sorreran.* Urte gutxiren buruan agertu ziren, beharizan horrek eraginda: *Euskara irrati bidez, euskara hire laguna, euskalduntzen, Jalgi hadi, alfabetatzen, hitz egin, euskata bizirik, euskara mailaka,*... bai eta gaur egun «eraginkorrak» deituak. Eta guzti horien lagungarri gisa, zenbait ariketa-liburu eta gramatika.

b) *Euskarako ikastorduen ugariketan.* Hasiera batetan astean

bizpauru ordutako eskolak, urte batzuren buruan sei, zortzi eta hamar ordutakoak izatera iragan ziren, gaur egun, gehien bat, hamar, hamabost, hogeituro ordutako ikastaroetan lan egiten delarik.

c) *Udako ikastaroen ugalketan.* Barnetegietako udako ikastaro trinkoen esperientziak ere indar handia hartu zuen eta izan dau, gaur egun, udan ez ezik urte osoan zehar antolatzen direla.

Hainbat urtetan (hamabost urtetatik gora) mugimendu horretan buru-belarri sarturik izan nintzanez eta azken urteotan beraren ibilera albotik jarritu, euskalduntze-alfabetatzeak izan dituen gorabehera gehienak hurbil-hurbiletik bizitzeko zein jarraitzeko aukera izan dut.

Hori dela eta, urte honetan AEK oso tinka larrian aurkitzen denez, Koordinakunde horren nondik norakoak aurkeztu nahi ditut eta burutu izan duen lanaren testigantza publikoa eman. Bilakaeraren lekuko izan naizenez, neure ikuspuntua ahalik eta zehatzen aditzera ematen saiatuko naiz.

AEK-ren lorpenak

Jarraian zenbait lorpen zehaztuko badituz ere, orokorrean, AEK-k eginiko lanik handiena, euskalduntze-alfabetatzeaz gainera, herritarren artean euskararen aldeko jarrera sortu eta bultzatzea izan dela esango nuke. Zer esanik ez, horrek lehen mailako eragina izan du azken urteotan nabaria izan dugun abertzaletasunaren igoeran.

Eskolak emateaz aparte, zenbait ekintza herritarretan buru-belarri sartuta ihardunéz, Euskal Herri osoan zehar euskeraren aldeko egintza guztietarako baliabide bultzagarri bihurtu izan da.

Batik bat, bizirik eta euskaldun iraun nahi duen gure herriak, menperabide zaizkion hizkuntza erdaldumen oztupoak gainditzeko egindako ahalegin izugarri eta etengabearen bultzatzaile sutsua!

Bestalde, euskaldunon artean alfabetatu beharraz arreta

sortzeko eta, batez ere, «euskotarren» artean euskara ikasi beharra zabaltzeko tresna izan da. Mito guztiak hautsiz, euskara inguruetako hizkuntzak baino hainbat errazago ikas daitekeela ordumuga batzuren barruan frogatu izan du, zenbait «euskotar» lotsa gorritan jartiz.

Benetan txalogarria, beraz, urte luze horietako bilakaeran zehar, etengabeki, gau eta egun, oztopo guztiak gaindituz, eskal kontzientzia nazionala sortzeko zein zabaltzeko egin izan dituen ahaleginak!

Lorpenak konkretatzera joez gero, besterik beste (sortu izan duen eta sortzen diharduen euskararen aldeko inguruko arnas bero horrez gainera) jarraiko urrats hauek azpimarratuko nirituzke, beraren eraginez bakarrik burutuak izan ez badira ere, beraietan AEK-k funtsezko partaidetza izan duelako:

1a) *Euskarari Institutu eta Unibertsitatean lekua egitea.* Ikastolako lehen ikasle euskaldunak Institutuetara eta Unibertsitatara heldu baino lehenago egin zitzaion lekua beraietan euskarari. Hain zuzen, AEK-n irakasle zein ikasle ziharduten unibertsitateko ikasle sutsuen burruka gogor, etengabeari esker. Euskara ikasgai gisa sartzea zein karrerak euskaraz ematen hastea ahalbiderratu zutenak AEK-rekin elkartasunean ziharduten ikasle alfabetatuak zein euskaldundu berriak izan ziren. Urrats garrantzitsu hori hurbiletik bizi izan dugunok (ni partaide izan nintzen bilakaera horretan) ondo baino hobeto dakigu, jakin ere, oso gutxi lortuko zela AEK-ren inguruan kontzientiatu eta prestatutako ikasle-irakasleen laguntzarik gabe.

2a) *Euskarako irakaslegoaren prestakuntza.* Euskara bultzatzeaz batera, inguruetako preminek eraginda, irakaslegoaren prestakuntzan ere eragin handia izan zuen. Euskara irakasteaz batera, aldizka eratu izan dituen ikastaro berezien bidez, irakasleak filologiarik ez genuen garai haietan, gaueskola horietan eskuratu genuen eskolak emateko trebakuntza eta, urteetan zehar dohainik edo erdi-dohainik arituz, euskararen alde etengabeki aritzeko garra eta bultzada. Egiatan aztertzeke litzateke zenbat irakasle

trebatu izan duen AEK-k!

3a) *Didaktika eta metodologia alorra.* Didaktikari dagokionean, zenbait urrats eman izan ditu euskarako eskoletarako materialea sortzen zein, esan bezala, irakaslegoa trebatzen eta, baita ere, esperientzia berri bereziak egiten. Horrela urtean zeharko barnetegietako ikastaro trinkoen kasuan, sei hilabetetan euskalduntzea lortuz. AEK-k bultzaturik hedatu izan da, batik bat, gaur egun bazterretan euskara irakasteko erabili ohi den ikaspide «eraginkorra» ere.

4a) *Euskara batuaren bultzatzaile izatea.* AEK-tik kanpo euskara batuaren aurkako joera nagusitzen zen unean, berak bultzatu zuen batuaren aldeko bidea, batucrazko lehen metodoak eta materialea eginez eta honen aldeko apostuari ekinez. Euskal Herriaren Lurraldetasun bakarra azpimarratuz hizkuntza nazional bakarra edukitzearen premia larria ere aldarrikatu eta defendatu izan du. Zer esanik ez, AEK-k eragin handia izan du euskara batua egungo gizartean errotu eta betiko finkatzerakoan.

5a) *Euskararen aldeko kontzientziakuntza-lana.* Azpimarratzekoa da, era berean, AEK-k urte luze horietan zehar egindako kontzientziakuntza-ahalegina. Hor dira ageri-ageriko euskara ikasteko gogoia sortzeko zein bizkortzeko hain garrantzi handiko izan diren Euskaltzaindiak antolatutako BAI EUSKARARI deiturari eskainitako laguntza handia eta hain arrakastatsu gertatu izan den berak antolatutako KORRIKA. Bestalde, EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ eta E.K.B. talde erreibindikatzailen sortzailetariko ere bada. Aipatzekoak dira urtero ikasturtearen hasieran egiten dituen euskararen aldeko kanpainak, zein urtean zeharko AEKanpada, AEKantua eta abar bezalakoak. Ez du AEKk parekorik izan euskararen aldeko egintzak antolatzeko ekimenak asmatzerakoan!

6a) *Beste urrats aipagarri batzu.* Azkenik, AEK-k nahikoa eragin izan duela beste hiru urrats hauetan esango nuke:

a) Euskal liburugintzaren hedapenean, jendea alfabetatuz zein euskaldunduz irakurlegoa ugaritu baitu, hain zu-

zuen ere, AEK-k, euskara irakastekoan, jendea euskara ahoz eta idatziz erabiltzera bultzatu izan duelako.

- b) *Euskara alorreko lan-enpleguen sorreran*, era guztietarako lanpostuetarako jendea prestatzeaz gainera, hainbat ikasle, etxakandre eta karrerarik gabeko langabeturi, orduka lana eginez bederen, diru-iturria eskainiz. Horrela, gainera, jende pila galanta bultzatu du euskal kulturaren zerbitzuan lan egitera.
- c) *Erdaldunak euskal gizartean integratzen*, gure hizkuntza eta kulturaz jabeturik abertzale bihurturik euren buruak oso-osoan euskadun egiteko aukerak eskainiz eta euskara ikasteko gogorik zenbait «euskotarrentzat» salaketa-bide gertatuz.

Horrela aritu izan da AEK, urte ilun eta neketsuetan zehar, diru-iturririk gabe, irauteko baliabideak eskuratzeko jaialdian antolaketa, dirubilketa eta beste horrelako zenbait bideetara jo beharra zuela, jo eta ke, inoiz atzera egin gabe, Euskal Herri osoa euskaldundu nahian.

Egia esan, zenbatu ezinak dira AEK-ren inguruan euskararen alde eman izan diren doako orduak, ahalegin neketsuak eta lan itxaropentsuak. Agian, gure hizkuntzaren alde, historian zehar egin izan den ahaleginik handienetarikoa!

AEK eta HABE-ren arteko gatazkak

Azken urteotan tirabira gaztakatsu bizian aritu izan dira AEK eta HABE Arazoak, une honetan berriro biziagoti egin dela, HABE-ren sorreran bertan ditu erroak. Hain zuzen ere, Eusko Jaurjaritza osotu ondoren Euskaltzaindiaren babespean zebilen erakunde herritarra, partaide gehienek eritziaren aurka, Gobernu berriko Kultura Kontseilaritzara eskualdatzea erabaki zenean.

Gertakari hori une politiko lartian gertatu zenez, hots, Hego Euskal Herriko Administrazioaren banaketa (Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroakoa) politikoa jazo zen unean,

AEK-ko gehiengoak, Euskal Herri osoko Lurraldetasun bakar-
ri ukorik ez egiteagatik, Euskaltzaindiaren babesetik kanpo,
koordinakunde autonomo herritar izaten jarraitzea erabaki zuen.
HABE-ko lehen zuzendaria eta partaideak AEK utzi eta etorriak
zirenez, gehienak hasiera-hasieratik gogor ekin zioten hura be-
ren esanetara makurterazteari.

AEK-k, bestalde, oso jokera kritikoa erakutsi izan du, politi-
koen euskararekiko moteltasuna salatuz eta, alde horretatik be-
giratuta, molestagarri gertatu izan da erakunde publikoentzat. Ez
da harritzekoa, beraz Eusko Jaurlaritzaren peko erakunde den
HABE eta AEK-ren artean istilurik izatea.

Horrela, tirandura horrek eraginda edo, euskarako eskola
guztien erakunde dinamizatzailer eta bizkortzailer zein esperien-
tzia berrien eragile izateko sortutako HABE, talde kontrolatzaile
izatera bilakatu zen. Piskanaka-piskanaka, hor-hemenka estutuz,
sokaren mutur eta bitarteko guztiak ongi lotzeari ekin zion.

Hala ere, AEK-k, oztopoak oztopo, zartadak zartada, ke-
mentsu jarraitu izan dio bere bideari, horrek, sarritan, dirula-
guntzen ukapena zein murriztapena ekarri izan badio ere.

Honakoak izan dira HABE-k herritar mugimendua bere
esanetara bideratzeko erabilitako baliabiderik nagusienak:

- 1a) Euskaltegi «pilotoa» sortuz, irakaskuntza zein adminis-
trazioko langileen eskalduntzea bere eskutan hartzea,
gainerakoentzat hondakinak utziz. Zentro honek irens-
ten ditu Euskarentzako Aurrekontuetako diru gehie-
nak.
- 2a) Lehendik AEK-k euskaltegiak zituen zenbait herritan,
aukera merkeagoak eskainiz, udal euskaltegien ezarpe-
na bultzatzea.
- 3a) Hiri handietan sortutako euskaltegi autonomo pribat-
uak bultzatzea, nolabaiteko homologazioaren bidez
dirulaguntza apartekoak emanez.
- 4a) Ia bete ezinak diren kontrol administratibo zorrotzak

ezartzea eta diru-iturrien giltzak eskutan izanik laguntzen banaketa erizpide arbitrarioak erabiliz egitea. Dirrela bi urte honako datu diskriminatzaileok egin ziren ageriko:

AEK- 37.000 ikasle	Orduko eta ikasleko	35 ptatako laguntza	
Udal Euskaltegiak 3.000 ikasle	»	»	155 ptatako kostua
HABE-k 1.612 ikasle	»	»	356 ptatako kostua

Ez da harritzekoa, Eusko Jaurlaritzako arduradunek ezin izan izatea, etengabeki, urterik urte, horrelako kontu-banaketa diskriminatzailearen ageriko salaketa nabari eta gorri hori! Zer egin, baina? Legearen bideak estutu eta ataka horretatik sartu nahi ez duen edonori laguntzak ukatu.

Horrela, 1988.eko Urtarrilaren 7an kaleratu zen HABE-ko Zuzendari orokorraren 1987.eko Abenduaren 17ko Ebazpena. Bertan, aurreko urteetan bidean jarritako legeria kontrolatzailea azken muturretaraino eramaten da. Ebazpen horrek zer aztertu, estabaidatu eta salatu baldin badu ere, orain AEK galbidera bultzatzen bertako xedapen nagusienak azpimarratuko ditut:

1a) Irakaslegoari, euskarako EGA tituluaz gainera, nahitaez, berriei datorren urtetik aurrera eta gainerakoei hiru urtetako epearen barruan, Unibertsitate mailako titulazio akademikoa exigitzea.

ONDORIOA: AEK-ko irakasle gehienak, langabezia, euskarako eskolatatik kanpo uztea.

2a) Euskarazko zentro guztiei, gutxienezko irakasle eta ikasle kopurua exigitzea (48 ikasle eta 2 irakasle eta ikasgelako gutxienez 12 ikasle), ikasgelak egoitza bakarrean egotea ezinbesteko izango delarik eta zentroen arteko elkarketarik onartzen ez dela.

ONDORIOA: Herri txiki eta baztertuetakako euskaltegiak dirulaguntzarik gabe uztea.

3a) Barnetegietako ikastarotarako ere neurri estuak jar-

tzen dira: gutxienez, egoitza bakarrean 24 ikasle, 3 irakasle, 20m²tako 3 ikasgela eta irakasle bereziak eta horretaz gainera HABE-ko Lehendakaritzak onartuak izatea.

ONDORIOA: Hainbat eta hainbat udako ikastaro trinko egin gabe geratzea.

4a) Ikasle bakoitzari gutxienez ikastordu 60 pezeta kobratu beharra ezartzea.

ONDORIOA: Irakaskuntza garestitu, oztopoak jarri eta AEK-ri bezeroak kentzeko bideak jartzea.

Lehendik handia bazen HABE eta AEK-ren arteko tirandura, aragotu egin zen erabaki guzti hauen ondorioz. Ongi pentsaturik argitaratu zuen, nonbait, betidanik AEK-ren etsai amorratua izan den Joxe Juan González de Txabarrí Miranda, HABE-ko Zuzendari Orokor «hoiak» bere ebazpen hori. Azken ostikada, nonbait!

Baina, jakina, halako maltzurkeriaz gertatutako ebazpenak, bidnabar, AEK-tik kanpoko beste zenbait talde ere ukitzen zituen, hain zuzen, Batzokietan eta martxan ari direnak. Horrek ahalbideratu zuen, nonbait, ordurarte inoiz lortu ez zena, hots, EAJ eta AEK, legeria horren erabilera geldierazteko asmotan el-karrizketan jartzea. Bide batez ongi zetorkion AEJ-ri, bestalde, AEK-ren kinka larri hori AEK-ri beti erakutsi izan duen Eusko Jaurlaritzarenganako jocra kritikoa aldatzea exigitzeko.

Horrela, negoziazio luzeen ondoren, konpromezu batzu onartu zituzten, AEK-ri zenbait baldintza ezartzen zitzaizkion artean, EAJ-k bitarteko lana egiteko hitza emanez, bere partidukoak ziren Gobernarién aurrean konponbide egokia lortzeko bideak errazteko. Bazirudien, azkenean, irtenbidean zirela. Baina, zenbaitek aurretik susmatzen zuten bezala, ezerezean geratu ziren ahalegin guzti horiek, HABE-k ez zituen onartu eta (AEK-ri urriaren 21ean emandako erantzuna).

Zalantzarik gabe, gaztakaren funtsa, batik bat, irakaslegoa-

ren homologazio prozeduran datza. HABE-k unibertsitateko bi-
detik jo nahirik, horretara makurtzen ez direnak guztiz baztertu
gura ditu. AEK-k ostera, honako proposamen hau egiten du:

- a) Hamar urtetan zehar euskarako eskolak ematen arituta-
ko irakasleak besterik gabe homologatuak izatea.
- b) Hiru eta hamar urteren artean aritutako irakasleci, ho-
mologatzeko 25 ordutako eskola-ziklo baten defentsan
datzan proba bat egitea.
- c) Hiru urtetik beheragokoak, AEK-ren Irakasle Eskolako
ikastaroak burutzerakoan homologatzea.

Honetaz gainera, azterketa sakona eskatzen dute ikasgela,
zentro eta barnetegietarako proposatzen diren ikasle-irakasleen
arteko kopuru-ratioek, hainbeste talderen desagerketa gerta ez
dadin eta antzerako zer bait udako ikastaroek ere.

ONDORIOAK

Une honetan euskararen egoera hain larria izanik, inolazko
maltzurkeriarik gabeko hausnarketa sakona egin beharra dugu.
Jakina denez, azken urteotan, gutxitu egin da adinekoen arteko
euskarako ikaslegoa. Gertakari honen zioak bilatu behar ditugu.
Diru publikoaren kontrola ezinbestekoa baldin bada ere, ez dut
egokitzat horren atxakiaz euskaltegiak egoera itogarrietara era-
matea. Ezin dugu ahaztu, helburua herri erdaldun hau euskal-
duntzea dela! Hori dela eta ulertezinak gertatzen zaizkit HABE-k
era askotan AEK-ren aurka erakutsi izan duen ikusiezina eta eza-
rri duen legeria alorreko bide estu hori. Agian, ez ditu guztiz
kontutan hartu, legeria hori ezartzeak gure Herriaren euskal-
duntzeari ekar diezaizkion kalteak. AEK bakar bat ez ezik, halako
hamabost edo gehiago beharko genituzke gure herria euskal-
duntzeko bide diren ala ez aztertu beharko luke eta hala izango
ez balitz, harrokeriak alde hutzi eta bide berriari ekin. Hitzak
haizeak daramatza eta erne, nik dakidala, ereindako haziak egiten
dira bakarrik!

Guzti hori dela eta, gatazka honen nondik norakoak azter-

tzen saiatu ondoren, oraingoz arrazoi sendoak ditut AEK-ren bi-
deari eusteko. Kontrolak ugaltzeak ez dakar berez irakaskuntza-
ren hobekuntzarik. Ez eta irakaslegoari nahitaz unibertsitateko
titulua eskatzeak ere. Maiz, irakaslearen gogoak eta kemenak ja-
kituria handiek baino askosaz gehiago lortzen dutela ikusi izan
dut. Jendea, gainera, ikasten duen euskara erabiltzera bultzatu
behar dugu, hizkuntza hila izan ez dadin eta horretan, gaurko
lanik gehien egiten duen taldea (eskola orduetatik kanpo hain-
beste ekintza antolatuz) AEK dogu. Guzti horregatik, herririk
herri hedatuta hain gogotsu lanean ari diren euskarako zentro
handi eta txiki guzti horiek aurrera egin dezaten nahi dut. Une
honetan, egoera larria baldin bada ere, badut itxaropenik AEK-
ren Batzorde Nazionalak Hernanin 1988.eko Urriaren 29an ar-
gitara emandako txostenaren azken berbok irakurtzean: «8.- Bu-
katzeko, esan behar oztopo eta eragozpenak handiak badira ere,
AEK-k aurrera egingo duela Baskongadetan bezala Nafarroan
eta Iparraldean ere».

Amaitzeko, nik beti egingo dudala gaurko Euskal Herri er-
daldundu honetan «EUSKARA ETA KITO» buru-belarri defendan-
tzen duen AEK-ren alde aitortu behar!

Patxi Unbarren

*OHARRA: Gaur, 1989.eko Urtarrilaren 20an, Estonian, bertako par-
lamentuak, gehiengo handiz jendaurreko harremanetan
ihardun beharra duten langile publiko guztiei estoniar hiz-
kuntza ikasteko lau urtetako epea ematea erabaki duela ja-
kinerazi digute egunkariak. Aurrerantzean, legegintza eta
administrazioko ihardun guztiak estonieraz izango omen
dira. Noiz halako zerik gure artean!!! Benetan euskaldundu
nahi ete dugu Euskal Herria?*